

• **Futbola**

Alaves: Maneren taldeak gaur jokatu du lehen partidua Mendizorrotzako zaleen aurrean, Dinamo Bucarest taldearen aurka → **28**

• **Pilota****Donostia Hiria torneo:**

Gaur jokatu dute finala Unanue-Errasti eta Titin III.a-Elkoro bikoteek (23:00, ETB 1) → **32**

Txirrindularitza

Espainiako Vuelta

Zullek lidergoa sendotu du oso etapa ikusgarrian

Roscioli ozta-ozta harrapatuta irabazi zuen etapa Eladio Jimenezek (Banesto); alde esanguratsuak izan ziren faboritoen artean



Eladio Jimenezek garaipen ederra lortu zuen Xorret de Catin, pendiz gogorrenetan faborito guztiak atzean utzita.

Andoni Urbistondo / Donostia

◀ **MADRILGO** podiumera igozteko hautagaien jarrera erasokorra espero zen atzo Cati mendateko pendiz gogorretan gora, baina erasoan ikusizuna aitzin, lehen mailako txirrindularitzaz gozatu ahal izan zen. Azken 40 kilometrotan haize bortitzak eta euri erauntsiak tropela zatitu zuen aurrea, eta eroriko ugari eragin ondoren, irristatzeko pista zirudien errepidean. Bi kasuetan tropel nagusitik at geratu ziren karreris-

tek bat-egiteko egindako aha-legina fina izan zen benetan.

Xorret de Catin jada nahikoa zigortua zegoen tropelean ez zen eraso aipagarrik izan. %15etik gorako pendizetan bakoitzak ahal duen erritmoan egiten du bidea, eta atzo Eladio Jimenez (Banesto) etapa garailea, Heras igotzailea eta Zulle izan ziren indartsuenak. Liderrak Vuelta irabazteko faborito nagusia dela erakutsi zuen.

Goiz erne zen etapako protagonista: Fabio Roscioli (Jazztel-Costa de Almeria).

Kilometro asko bakarrean egiten ohituta dago italiarra, eta 27. kilometroan ospa egitea erabaki zuen.

Tropelaren baimenarekin 11 minutu pasatxoko alde zuen Yeclan, helmugatik 60 kilometroa. Talde nagusian Telekom, Kelme eta Banestok erritmoa bizitu zuten, eta laster asko, zortzi minutura jaitsi zen Roscioliren alde.

Une horretan, haize eta euri erauntsi batek tropelaren ibilera oztopatu zuen, eta ondorioz, Roscioliren ahalegin nekeza dezente erraztu. Hai-

zeak talde nagusia hautsi zuen berriro. Ez zuen herenegungo sarraskirik eragin, baina karrerista askok espero ez zuten astindua eman behar izan zioten bihotzari, tropel nagusian sartzeko.

Euria, erorikoak eta igoera ikusgarria

Euri zaparrada indartsuak hartu zuen haizearen txanda. Bihurgune eta bidegurutzeetan karrerista asko euliak balira bezala erori ziren: Alberto Martinez hiru aldiz

(Euskaltel), Manuel Beltran bitan (Mapei)... Bitxia izan zen oso Martinez pasaitararren irudia, haserre, bizikleta bazterrera bota eta taldeko zuzendariaren autoa iritsi zain errepidean eserita, nazka-nazka eginda.

Aurretik Rosciolik temati segitzen zuen helmugarantz. Zazpi minutu zituen 20 kilometroa, sei pasatxo handik hamarrera, 5,30 Xorret de Cati mendatea igotzen hasi aurretik. Artean guztiz osatu gabeko tropelean Telekomek hartu zuen taldea gidatzeko ardura, Andreas Klodenekin.

Faboritoak ez ziren gehiegi mugitu. Aldapa gogorretan gora nahikoa zuten eustearekin, eta halaxe egin zen onenen hautaketa. Hautaketa hori egin aurretik Eladio Jimenezek (Banesto) jo zuen eraso. Roscioli sufritzen hasi zen, gero eta gehiago. Ezinean zihoan 125 kilometro bakarrik egin ostean, eta mendateko azken kilometroa sigi-sagak egiten igo zuen, ezin zuzen igo-eta. Gutxitan ikusi da hain garbi karrerista baten sufrimendua.

Lau, hiru, bi, minutu bat, 15 segundo... Metro bakoitza infernua Rosciolirentzat, eta Jimenezek gainera 200 metroa harrapatu. Gaina hartuta eskura zuen etapa garaipena Rosciolik, baina indarrak loriatik hurbil ahitu zitzaizkion.

Talde nagusia karreristak galtzen joan zen bidean, eta azken kilometroa bost karreristek egin zuten batera: Zulle liderra, Heras (Kelme), Gotti eta Herve (Polti) eta Rumsas lituaniarra (Fassa Bortolo). Azken biak atzean geratu ziren azken aldatsetan.

Jimenezek bederatzi segundoko errenta zuen Heras, Zulle eta Gottirekiko. 30 segundora igaro ziren Ullrich eta Igor Galdeano. Heras zitu bizian abiatu zen Jimenezen bila, baina ez zuen lortu Banestokoa harrapatzea. Galdeanok eta Ullrich 41 segundo galdu zituzten, Olanok 1.06 eta Escartinek 1.12. Zullek urrezko mailota sendotu zuen.

MONDELO / EFE